

Leka egin berrien usaina

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Puska txikitan ebaki ditut osagai guztiak, ura, olioa eta gatza bota, eta martxan jarri dut presio-eltzea, muturra noiz igoko zaion itxaroteko. Eta leihotik begira jarri naiz bitartean.

Goizean goiz maitale izan duen argiak pareko leihoak berotzen ditu orain. Bosgarreneko amonak bere egongelako begiratokia hartu du besaulki, eta eguzkiari bizkarra emanda goxatu ditu bere artilezko jertsea eta gorputza, kristalean.

Hunkitu egin nau irudiak, bizitzea zerk izan behar lukeen erakutsi didalako amona horrek, hitzik egin gabe. Moteltasun epel horretara batu nahi

ko nuke, bere leiho hegian eseri, eguzkiak bizkarra berotzen digun bitartean, bizitzak pilatu dion jakintzatik hitz egin diezadan.

Dei batek jaitsarazi nau laino idealizatu horretatik. Spam dei horietako bat zen, banketxearen izenean, ez dudan diru kopuru bat berehala eta baldintza perfektuetan izan dezakedala esanez, eta telefonoz eta arrapaladan inork gutxik barnera ditzakeen letra-txikidun ohartarazpenak zerrendatuz.

Duda egin dut: beste batzuetan bezala, eskaini behar didana ez zaidala batere interesatzen tinko azaldu eta deia ahalik eta azkarren moztu, ala telefo

noaren bestaldean nire antzeko bizitza bat izan lezakeen pertsona bat dagoela pentsatu, eta esatea tokatzen zaion hori esaten utzi.

Bigarrena aukeratu dut, eta hogeita hamar segundoan azaldu diot eskertzen diodala, baina une honetan ez dudala halako ezer behar. «Eskerrik asko entzuteagatik» batekin eten du deia, eta pareko leihora egin didate berriz begiek. Hara, hasi da eltzea txistuka; usain honetan egingo nuke etxe bat.

Akaso, bizitzak egon beharko luke gertuxeago leka egin berrien usainaz eta beste zenbait egunerokotasun poetikoz gozatzen ikastetik. •

Uholdeak gure burmuinetan

Miren AZKARATE
BADIOLA

Urriaren 29an valentziar herrialdean gertaturiko hondamendiak gaur arteko oihartzuna izan du medioetan.

Eta are gehiago esango nuke, leku guztietan: kaleko elkarriketetan, lanekoetan, sare sozialetan, familia kideekin izandako telefono deietan... “Dana” okupatu du gure bizitzetan. Hasieran, tragedia komentatzeko, eta ondoren, *self service*; gobernua kritikatzeko, aldaketa klimatologikoaz hitz egiteko, uholdeek ekarri zuten herriaren elkartasun uholdeaz hitz egiteko...

Telebista piztuz gero ez dugu besterik izan, eta berriz ere izutzen nau *mass media*-k duen botereak horrelakoetan. Nahi izanez gero ez duzu besterik ikus

ten, ez entzuten, eta zure iritzia ere marioneten moduan moldatzen da. Ikusleriak nortasun eta kriterio handirik ez badu, uraren indarraren irudi horietan joango da bere ikuspegia ere.

Ez da hondamendi bakarra izan zoritxarrez, eta izugarri gustatuko litzaidake elkartasun uholde hori hara ere iritsiko balitz. Kuban jazotakoaz ari naiz zehazki. Urriaren 29tik gaur arteko tarte txikian, bi urakan eta bi lurrikara pairatu dituzte irlan. Asko ziur ez garela enteratu, eta ez dut inor errudun egin nahi. Baina bai, han ere oso egoera larrian daude, laguntza handia behar dute. Gobernuaren hitzetan ez dago hildakorik, baina bai kalte material handiak. Honi gehitu azken urteetako inflazio eta blokeo itogarria, ja

nari falta, ur falta eta energia falta. Eta kezkagarriena, ilusio falta.

Baina hau dena ez dugu medioetan ikusiko, ez dute nahi. Soilik Kuba guztiz “anikilatuko” duten egunean bonbardatuko gaituzte 24 orduz, lehen munduak komunismoaren diktadurarekin amaitu dugula ospatzeko. Lehen mundu hori, non 200 hildakotik gora izan diren gaizki kudeatutako eurite batzuekin. Kuban, aldiz, bat ere ez, gauza materialen gainetik; tontakeria politikotik haratago, jendea jartzen baitute beti beste guztiaren gainetik.

Eta bai, badakit, horrela jarrita, tamalez egunero munduko txoko askotan dute elkartasunaren beharra, etxetik hasita urrutira joan gabe. Baina esan beharra nuen. •